

MATXURATUTAKO ACER DISPOSITIBOAK (RMA) OPORRETAN KONPONTZEKO JARRAIBIDEAK

JARRAIBIDEAK:

Acer bezero arreta zerbitzuko telefonora deitu **93 800 36 65**, ondorengo datu hauek eskura edukita:

- 1- **Intzidentzia duen dispositiboaren serie zenbakia** (dispositiboaren azpialdean dauden 22 digitu, adibidez: NXSHEEB0024221196F7600).



- 2- **Dispositiboak duen arazoa**, (XENON-era BIDALIKO DELA ZEHAZTU). Dispositiboari gertatzen zaiona azaldu behar da arazoaren nondik norakoak zehatzuz, ez baitute onartzen "EZ DABIL" besterik gabe esatea. Azalpena ahalik eta zehatza izan behar da eta GAZTELERAZ.

Adibidez, disko akatsak ditu, ordenagailua pizten da baina ez du pantailan ezer azaltzen, tekla batzuk ez dute egiten, sistema abiaraztean pantaila urdina azaltzen da...

- 3- **Dispositiboa jasoko den helbide osoa, telefonoa (eskura edukiko dena), posta elektronikoa eta harremanetan jarriko den pertsonaren izena.** Datu hauek jakinarazi bezain pronto Acer Etxearen Zerbitzu Teknikotik intzidentzia zenbaki bat jasoko duzue (RMA izenekoak). Zenbaki hau posta elektronikoz jasoko duzue eta honekin batera Acer Iberia Etxearen helbide fisikoa. Jarraian dispositiboa ondo enpaketatu kolpeetatik babesteko neurriak hartuz. Paketearen kanpoaldean eta ondo ikusiko den tokian, jasotako Acer Iberiaren helbide fisikoa eta RMA zenbakia (**ACERREK RMA ZENBAKIRIK EZ DUEN DISPOSITIBORIK EZ DU ONARTUKO**).

Adibidez:

**RMA 7513062S
XENON
TROIA BIDEA 20, 7-B1
20.115 ASTIGARRAGA (GIPUZKOA)**

DISPOSITIBOA BIDALTZEKO UNEAN

Dispositiboa bidaltzeko unean aparteko gehigarriak ez da bidali behar:

Ez dispositiboaren kablea, ezta dispositiboaren funda edo poltsarik.

24 – 48 orduko epean DHL garraio zerbitzua dispositiboa jasotzera pasako da eta ordurako kaxa prestatuta beharko luke izan garraiolariak arazorik gabe dispositiboa eskuratzeko.

Dispositiboa konpondu bezain laster DHL garraio zerbitzuak hartutako helbide berdinerara itzuliko du.

**** Dispositiboak duen arazoa hardware arazoa beharko luke izan.** Sistema eragilearen akatsa balitz aurrekontu bat pasako litzateke bestela. Edozein kontsultarako ere, telefono honetara hots egin dezakezue:

Administración de Xenon administracion@xenon.es

943 444 444